

ORAIN ARTE ARGITARATUTAKO KAPITULUAK

- 1.- TEKILADUN AEROFONOAK
- 2.- TEKILADUN KORDOFONOAK
- 3.- METALEZKO AEROFONOAK
- 4.- ZUREZKO AEROFONOAK
- 5.- HARI IGURTZIZKO KORDOFONOAK

HOTSAK SORTZEN

**HARI
IGURTZIZKO
KORDOFONOAK**

ZER DA HOTSAK SORTZEN?

HOTSAK SORTZEN bideo-serieak gaur egun musikaren munduan erabiltzen diren musika-tresnak, taldeka sailkatutik, ikaslegoari erakutsi nahi dizkio eta, bere helburu nagusia ikaslego horri musikaren alderdi honen ulermena erraztea eta laburbiltzea da.

Bideo-seriea musika ematen duen irakaslea bere eguneroko lanean laguntzeko tresna osagarri bat eskaintzeko asmoz eratu da. Horrela berak eskualdean dituen bestelako bitartekoak, liburuak, musika-tresna bidezko ekimenak, audizioak e.a. HOTSAK SORTZEN bideo-serieaz indartu eta aberastu egin ahal izango ditu.

Musika-tresnak sailkatzera koan erabiltzen den hiztegia orohar, C.Sandis-ek 1914. urtean proposatu zuenari jarraikiz osatu da. Dena dela irakasleak ikusi beharke du zein hiztegi komeni zaion, orain arte arabili duena kontuan hartuta. Hala ere interesgarria litzateke ikaslegoaren antzinako formei buruzko jakinahia piztea. Izan ere gaur egun arnunko erabiltzen diren hainbat hitzek, orduko orolitzapena baitakarkigute. Besteak beste "tele-fono", "fonoteka" eta horrelakoak.

NOIZ ETA NOIA ERABILI HOTSAK SORTZEN

Hots eta doinuak sortzen duten musika-tresnei buruzko lan didaktiko hau, HOTSAK SORTZEN bataiatu duguna, Derri gorrezko Bigarren Hezkuntzan darduten taldeentzat pentsatua dago. Adierazpen Instrumentala izenburua duen Atal Nagusian legoke eta honen barruan Bigarren Edukin Multzoan "Adierazpena eta Komunikazioan" alegia.

Bideo-serieari heldu aurretik komenigarria litzateke ikaslegoa apur bat prestatutik izatea. Horretarako, modu empirikoan bada ere, irakaslearen hitzaldia medio, ikaslegoa musika-tresna eta hotsen berezitasun fisikoen berri izan dezan saiatuko gara lehenbizi. Gero, ezaguera empiriko horretatik egoera kognoszitibora iragan daitezen ahaleginduko gara, Bigarren Edukin Multzo hau eta Hirugarrena "Musika Historian" dioena erlazionatuz.

HELBURU OROKORRAK

SERIEAREN EDUKIN OROKORRAK

Bideo bakoitzak eremu historikoan aurkeztuko ditu musika-tresnak, garaian garaiko moda eta estiloen eboluzioak berarengan sortutako aldaketak erakutsiz bai teknikoki bai apaingarrietan. Musika-tresna ezberdinak ikusteak "Hotsak nola sortzen diren" erakustea du xede. Gai honek berebiziko zailtasunak ditu hainbat kasutan, esate baterako organoan. Horregatik, nahitaezkoa da instrumentuak zehatz-mehatz ikustea eta entzutea hori guztia ulertzeko. Horra hor ikus-entzutezkoen papera. Bideoan kontu handiz ukitzen den beste alderdi bat zera da: musika-tresna bakoitzari dagokion toki fisikoa eta ingurunea. Azken hauek aldaketa nabarmenak ezagutu dute historian zehar, garaia, giroa eta musika-tresnaren erabilieraren arabera.

- 1.- Musika-tresna bakoitza berezko dituen doinuak medio ezagutua izan dadin lortzea.
- 2.- Doinua eta doinu hori ekoizten duen musika-tresna erlazionatzea. Horrekin batera doinua sortzeko modua eta forma musika tresnarekin erlazionatu.
- 3.- Musika-tresna bakoitzak historian bete duen lekua kokatzea.
- 4.- Doinuaren berezitasunak ezagutu, aurreko esperientzia musikaletan jasotako ezagueraz baliatuz.
- 5.- Musika-taldeen barruan instrumentuak bereiztea. Lan hau musikagile kopuru ezberdinez osaturiko musika taldeekin egingo dugu.
- 6.- Musika-tresnak ikaslearen ingurune hurbilarekin erlazionatu.
- 7.- Mendebaldeko musika-talde garrantzitsuenen ezagutza. Balta norberaren herri ingurukoak ere.

BIGARREN HELBURUAK

- 1.- Entzumena garatzea.
- 2.- Doinuaren berezitasunak partitura batean nola adierazten diren ezagutzea.
- 3.- Doinuaren ezaugarri guztiak sor dezaketen instrumentuak sortzea.
- 4.- Musika eta natura elkartzea. Mani-festazio hau nola ematen den erakustea instrumentuetan. Esaterako organoak badu "txori kantua" izeneko erregistro bat.

JARRERAZKO HELBURUAK

- 1.- Talde lana bultzatuz, taldeari buruzko balorazioa eta errespetua landu.
- 2.- Erantzukizuna garatu proposaturiko ekintzetan parte bizia hartuz.
- 3.- Atenzioa, obsebazioa, kontzentrazioa eta isiltasuna bizitu, inguruan dutenaz ohartzeko (hotsak eta doinuak barne) biderik onenak baitira.
- 4.- Musika-lengoaiaren orokortasuna sentitzen salatu munduko gizarte guztietan erabiltzen dela erakutsiz. Bestalde musikaren ahalmen terapeutikoen berri ere emango diegu.
- 5.- Taldeko beste lagunekiko izan behar dugun begirune eta errespetua garatu.

ARIKETAK

- Ikasleei ahal duten musika-tresna guztiak klasera ekar dezaten eskatuko diegu. Material guzti hori familiatan sailkatuko dugu edo taldetan. Jarraian ikasleek musika-tresna bakoitzaz demostrazio bat egingo dute eta denen artean, musika-jolea eta entzuleen artean instrumentuaren ezaugarriak zehatzuko dituzte, beti irakaslearen gidaritzapean.

- Herrian edo hirian ematen diren kontzertuetara joatea nahitaezko ariketa da, bideo-serie hau modu egokian landu nahi bada. Kontzertu ostean, klasean, ikasleek ikusi duten orkestra, banda edo musika-taldea zatitu egingo dute doinu eta instrumentuen arabera.

- Bideo-seriean erakusten diren instrumentuak komeni da historikoki begiratzea. Horretarako, gure herriko zein gertuen dugun hiriko antzinako eraikuntza nahiz museoetara joatea aholkatzen da. Toki horietan erraz aurkituko ditugu antzinako musika-tresnen arrastoak. Elizetako estatua eta irudietan edota arte ederretako museoetako koadroetan.

Ariketa hau eginez gero, - MUSIKA -
ARTEA - GARAIKO ESTILOA, erlazionatu ahal izango ditugu.

EDUKINA

Kapitulua lau atal nagusitan banatua duzu:

-Lehen atala. Aurkezpena.

Lehen atal honetan hari-instrumentuen barruan arku bidez hariak igurtziz jotzen direnak osatzen duten familiako partaideen bilakaera historikoaz mintzatuko gara. Haien aurrekariak zeintzuk izan ziren, eta haietako bakoitzaren berezitasunak aztertuz. Bukatzeko familia hau osatzen duten lau instrumentu nagusiak ezagutzera ematen dira. Alegia, Bibolina, biola, biolontxeloa eta kontrabaxua.

-Bigarren atala. Bibolina.

Bigarren atal honetan, familiako instrumenturik garrantzitsu eta ezagunena ikusiko dugu. Bera dugu familiako besteen eredu. Bibolinaren aurrekariak izan ziren «Ravel» eta «Rehab» instrumentu zaharretatik abiatuta, bibolinak historian zehar ezagutu dituen aldaketa teknikoak aztertuko ditugu. Gasparo da Soto eta Magninirekin hasita, Amatitarren berrikuntzak eta Stradivariren azken ukituz mintzatuko gara.

-Hirugarren atala. Osagarriak.

Bibolinaren historia ikusita, instrumentu bera gaitzat hartuta, taller bateraino joan gara, gaur egun nola eraikitzen den ikustera. Prozesua pausoz pauso erakusten da, osagarri bakoitzaren betekizuna eta instrumentuan dagokion tokia aztertuz.

-Laugarren atala. Ahaidiak.

Kapitulua bukatzeko arkuez hariak igurtziz jotzen diren hari-instrumentuen arteko bibolinaren hiru ahaide nagusiak ikusiko ditugu. Bakoitzak ematen duen doinuaren ezaugarrien arabera, orkestran duen funtzioa azalduz. Instrumentu hauek biola, biolontxeloa eta kontrabaxua dira.

GLOSARIOA

RAVEL REBAB
GANBA BIOIA BRACCIO BIOIA
BESOKO LIRA
LAUDUN-BOSTUN-ZAZPIDUN...
BEHEKO DOINUA DOINU ZORROTZA
SONATA
TAPA - USTAIK - TAKOAK - GIDERRA
HARIK - ARIMA - FILETEAK - ARKUA
BARRA HARMONIKOA - ERRESONANTZI KAXA
LARAKOAK (KABILAK) - ZALDI-ZURDA
BIBOLINGILE (LUTHIER)

LIBURUAK

--El libro de la música--
V.V.A.A.
Parramon Institutoa
--Musicalia--
V.V.A.A.
Salvat, Iruña 1987
--Atlas de la música--
ULRICH, Michels
Alianza argitaletxea, Madrid 1982
--Diccionario Oxford de la música--
SCHOLLES, Percy A.
Ehhasa, Hermes, Sudamericana,
Barcelona, 1984.